




**Irakurketa Errazean**

# **Aurretiazko Borondateen Agiria egiteko informazioa**



# Aurkibidea

1. Zer da gida hau? .....3. orrialdea

## 2.Nork egin dezake

**Aurretiatzko Borondateen Agiria?** .....5. orrialdea

Zer esan nahi du

pertsona emantzipatua izatea? .....5. orrialdea

Zer esan nahi du

pertsona gaitua izatea? .....6. orrialdea

## 3.Noiz egin dezakezu

**Aurretiatzko Borondateen Agiria?** .....7. orrialdea

## 4.Nola egin dezakezu

**Aurretiatzko Borondateen Agiria?** .....8. orrialdea

## 5.Zein informazio idatzi behar duzu

zure **Aurretiatzko Borondateen Agirian?** .....10. orrialdea

## 6.Non aurki dezakezu

**Aurretiatzko Borondateen Agiriari buruzko informazio gehiago?** .....12. orrialdea

# 1. Zer da gida hau?

Gida honetan Aurretiazko Borondateen Agiriari buruzko informazio garrantzitsua azaltzen dizugu.

## **Aurretiazko Borondateen Agiriak**

zure osasunaren zainketei buruzko erabakiak hartzeko balio du.

Agiri hau oso gaixo zaudelako

**erabakiak zure kabuz hartu ezin izan** baino lehen edo **zure erabakiak adierazi ezin izan** baino lehen egin ahal duzu.

Agiri honi **ABA** ere deitzen zaio.

Aurretiazko Borondateen Agiria edo ABA ez da testamentu bat.

**Testamentua** dokumentu bat da eta bertan pertsona batek beste pertsona batzuei hiltzen denean bere gauzekin zer egitea nahi duen esaten die.

Adibidez, bere diruarekin, etxearekin edo kotxearekin.

ABAk osasun gaiei buruz hitz egiten du.

Dokumentu hau Irakurketa Errazean dago.

Irakurketa Erraza

ulertzeko errazagoak diren dokumentuak  
sortzeko modu bat da.

Irakurketa Erraza ondo etortzen zaie

ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonei,

eta adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonei.



Irudi urdin hau

Irakurketa Errazeko Europako logotipoa da.

Logotipo hau

dokumentu edo liburu batean ikusten duzunean,

horrek esan nahi du ulertzeko errazagoa dela.

## 2. Nork egin dezake

### Aurretiatzko Borondateen Agiria?

- **18 urtetik gorako** pertsonak.  
Pertsona hauek:
  - Gaituak egon behar dira.
  - Agiria egitea modu librean eskatu behar dute, hau da, inork behartu gabe.
- 16 urte bete dituzten pertsonak.  
Pertsona hauek:
  - Gaituak egon behar dira.
  - Agiria egitea modu librean eskatu behar dute, hau da, inork behartu gabe.
- Emantzipatuak dauden pertsonak eta aldi berean:
  - Gaituak daudenak.
  - Agiria egitea modu librean eskatzen dutenak, hau da, inork behartu gabe.

### Zer esan nahi du pertsona emantzipatua izateak?

Emantzipatuak esan nahi du epaile batek, aitak, amak, edo legezko ordezkariak esan duela adingabe batek bere osasunari eta ondasunei buruzko erabaki batzuk pertsona heldu bat izango balitz bezala hartu ahal dituela.

Erabaki zailagoak eta arriskutsuak hartzeko baimena behar dute.

## **Zer esan nahi du pertsona gaitua izateak?**

Gaituak esan nahi du  
pertonak bere osasunari buruzko  
erabakien garrantzia  
eta izan ditzaketen ondorioak ulertzen dituela.

Gainera, pertsona gaitu batek  
osasunarekin lotuta  
bere bizitzaren amaiera  
nolakoa izatea nahi duen adieraz dezake.

### 3. Noiz egin dezakezu

#### Aurretiazko Borondateen Agiria?

Dokumentu hau zure bizitzako edozein unetan egin dezakezu. Adibidez, gaztea zarenean eta osasuntsu zaudenean egin dezakezu.

Garrantzitsua da dokumentu hau oso gaixo egon baino lehen eta **erabakiak zure kabuz hartu ezin izan baino lehen** edo **zure erabakiak adierazi ezin izan baino lehen egitea.**

Adibidez, Alzhéimerra bezalako gaixotasun bat baduzu eta ezin baduzu zure kabuz erabakirik hartu. Edo koman utzi zaituen gaixotasun edo istripu bat baduzu eta ezin baduzu hitz egin edo erabakirik hartu ere.

Aurretiazko Borondateen Agiriarekin osasun profesionalek zure osasun gaiei dagokienez zure bizitzaren amaiera nolakoa izatea nahi duzun jakingo dute.

Agiri hau erabakiak zure kabuz hartu ezin dituzunean erabiliko dute bakarrik.

## 4. Nola egin dezakezu

### Aurretiazko Borondateen Agiria?

Aurretiazko Borondateen Agiria edo ABA egiteko hainbat testu osatu behar dituzu.

Zure ABA

pertsona funtzionario batekin,  
notari batekin edo lekukoekin egin dezakezu.

Hemen **3** aukerak azaltzen dizkizugu:

#### 1. Funtzionario batekin:



Pertsona funtzionarioak  
zure ABA egiten lagunduko dizu.

2 modu dituzu pertsona funtzionarioa batekin  
hitzordua eskatzeko:

- Eskatu hitzordua **gizarte-langilearekin**  
zure osasun-zentroan.

- Eskatu hitzordua  
**Osasun Arloko Herritartasunaren  
eta Aseguramenduaren Atalean.**

Hitzordua eskatzeko:



Deitu 848 42 31 98 telefono zenbakira.

Aukera hau dohainik da,  
hau da, ez da ordaindu behar.



## 2. Notario batekin:



Notarioak dokumentu guztiak egiazkoak direla, pertsona guztiek sinatzen ari diren akordioa ulertzen dutela eta akordioa borondatez sinatzen dutela ziurtatzen du.

Notarioak zure ABA egiten lagunduko dizu.

Aukera hau ez da dohainik, hau da, ordaindu behar da.

## 3. Zure lekukoak izango diren 3 pertsonekin:



Lekukoek zure ABA sinatuko dute.

**Lekukoak** egintza batean zerbait egiten dela ikusteko nahitaez egon behar dira. Pertsona horiek gabe egintzak ez du balio. Adibidez, ezkontza bateko lekukoak.

Zure ABA sinatzen duten 3 lekukoek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte.

Aukera hau dohainik da, hau da, ez da ordaindu behar.

## 5. Zein informazio idatzi behar duzu zure Aurretiazko Borondateen Agirian?

Dokumentu honetan zure ustez zuretzat onena zer izango den eta oso gaixo zaudelako zure kabuz erabakiak hartu ezin dituzunean zu nola zaintzea nahi duzun jarri beharko duzu.

Adibidez ez duzula makinekin edo sendagaiekin bizitza luzatzea nahi idatz dezakezu. Edo gaixo zaudenean ez duzula minik sentitu nahi idatz dezakezu.

Zure Aurretiazko Borondateen Agirian edo ABAn zer idatzi nahi duzun pentsatzea oso zaila izan daiteke.

Horregatik osasunaren pertsona profesionali eta zure konfiantzazko pertsoneri, adibidez senideei edo lagunei, gai honi buruz pentsatzen laguntzeko eskatu ahal diezu.

**Ordezkeri** bat ere hauta dezakezu, adibidez, senide bat edo konfiantzazko pertsona bat. Ordezkeriak zure ABAn idatzi duzuna betetzen dela ziurtatuko du.

Ez da derrigorrezkoa ordezkeri bat aukeratzea.

## **Zer egin behar duzu zure ABA amaitzen duzunean?**

Aurretiazko Borondateen Agiria prest dagoenean  
gizarte-langileak erregistratuko du.

Erregistratzeko baimena eman behar duzu,  
hau da, ados zaudela esan behar duzu.

Baimen hori  
gizarte-langilearekin sinatu behar duzun  
dokumentu batean emango duzu.

Horrela, zure kabuz erabakirik hartu ezin duzunean  
osasan-langileek agiri hau  
zure osasan-karpetan ikusiko dute.

Garrantzitsua da jakitea  
Aurretiazko Borondateen Agiria  
nahi duzunean alda dezakezula.

## 6. Non aurki dezakezu

### Aurretiazko Borondateen Agiriari buruzko informazio gehiago?

Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruzko informazio gehiago izateko Nafarroako osasunari buruzko web orrian sar zaitezke.

[aurretiazkoberondateak.nafarroa.eus](http://aurretiazkoberondateak.nafarroa.eus)

Zure ABA Osasunbideak duen erregistroan egoteko zenbait agiri aurkeztu behar dituzu.

Aurkeztu behar dituzun agiriak ikusteko

klikatu esteka honetan

eta sartu **Aurkeztu beharreko agiriak** izeneko atalean.

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Aurretiazko-Borondateak-erregistratzea>

Azken esteka honetan  
zure ABA egiten lagunduko dizun  
gida bat dago.

Gida hau **ez** dago Irakurketa Errazean.

Gida hau irakurtzeko  
sartu **Deskribapena** izeneko atalean.

Gero sartu

**Aurretiazko borondateen agiriaren xehetasunak** atalean.



← Tramiteen bilatzailea

## Aurretiazko borondateen erregistroa

Aurretiazko Borondateen Erregistroan izena ematea. Agiri horretan jasotzen da hartu nahi diren osasun-tratamendu eta -zainketa gainerako aurretiazko erabakia, borondatea adierazteko gaitasuna galtzen denean

EPEA ZABALIK Erakutsi dena ↓ ← Tramite honetara harpidetu

### OINARRIZKO INFORMAZIOA

Norentzat

Deskribapena

Nola egin dezaket aurretiazko borondateen agria?  
Laguntza gida kontsultatzeko, sakatu hemen: [aurretiazko borondateen agiriaren xehetasunak](#).

Dohaintzaren gainerako informazioa:

- Transplanteerako
- Emaille-txartela lortu nahi baduzu, hemen eskura dezakezu: <http://soydonantedeorganos.org>
- Ikerketarako: Nefarroan badago ikerketarako dohaintza egiteko aukera. Ikerketari edo irakaskuntzari buruzko informazioa nahi baduzu, hemen kontsulta dezakezu:
  - Nafarroako Unibertsitate Publikoa (948 168 449 telefonoan edo posta elektronikoz: [donacion.anatomia@unavarra.es](mailto:donacion.anatomia@unavarra.es))
  - Navarabiomed Biobankua
  - Nafarroako Unibertsitateko Klinikak



ANFASen Irisgarritasun Kognitiboko Zerbitzuak  
egokitutako eta balioztatutako dokumentua.

Irakurketa errazaren logo europarra: "© European Easy-to-Read Logo:  
InclusionEurope. Informazio gehiago ondorengo webgunean  
<https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>".